# Asier Guridi gose greban

JARDUN :: 01/04/2022

Asier Guridi Zaloña euskal errefuxiatu politikoak bere bigarren gose greba abiarazi du, epe laburrean.

[Euskera]

Asier Guridi Zaloña euskal errefuxiatu politikoak bere bigarren gose greba abiarazi du, epe laburrean. Aurreko gose greba bere errefuxiatu estatusa lortzeko jarri zuen martxan, eta Venezuelako gobernuak estatusa onartu eta formalizatu ostean, bertan behera utzi zuen gose greba.
Oraingo honetan, bere identitatea eta semearena lortzeko hasi du gose greba espainiar kontsulatuaren aurrean, identitate propiorik ez edukitzeak bere bizitza aurrera eramateko beharrezkoak dituen baldintzak garatzea galarazten baitu.

Asier 1992an atxilotua izan zen, espetxean 5 urtez bahituta egon zelarik. 2001. urtean, Espainiako estatuaren errepresioa beste behin ere sufritzea ekiditeko, bere herritik ihes egin eta Venezuelara inongo identitaterik gabe bizitzera joan behar izan zen. Orduz geroztik, inolako dokumentazio edo identitaterik gabe egon da bizitzen.

Beste behin ere, agerian geratzen ari da espainiar estatuak bere boterea zalantzan jartzen duten militanteen kontra aurrera eramaten duen errepresioa. Izan ere, aurrera eramaten ari den jazarpenaren ondorioz, errefuxiatu politiko bat beste behin ere bere herritik milaka kilometrotara egotera kondenatzeaz gain, bere bizitza arriskuan jartzera bultzatu dute, bere aldarriak entzun eta bete daitezen gose greba bat egitera beharraraziz.

JARDUN koordinadoratik elkartasuna adierazi nahi diogu Asier aurrera eramaten ari den borrokari eta, era berean, Espainiako estatuaren errepresioa salatu nahi dugu. Izan ere, Euskal Herria klase zein nazio parametroetan zapaltzeaz gain, honen aurrean borrokatzeko hautua hartzen duten militanteen aurka bere eskuetan duen makineria errepresibo guztia erabiltzen du. Bukatzeko, preso, errefuxiatu eta iheslari politikoen askatasuna aldarrikatu nahi dugu, horretarako amnistia ezinbesteko lorpena izango delarik. Amnistiak Euskal Herri Langilearen zapalkuntzen gaindipena suposatuko baitu, bide honetan, preso, errefuxiatu eta iheslari politikoen askapena ezinbestekoa izango delarik.

Gora Euskal Herria askatuta

Gora Euskal Herria sozialista

[Castellano]

El refugiado político vasco Asier Guridi Zaloña ha comenzado su segunda huelga de hambre, a corto plazo. La anterior huelga de hambre la puso en marcha para poder conseguir su estatus de refugiado y, tras la aceptación y formalización del estatus por parte del gobierno

venezolano, suspendió la huelga de hambre.
En esta ocasión, ha iniciado una huelga de hambre ante el consulado español para conseguir su identidad y la de su hijo, ya que la falta de identidad propia impide desarrollar las condiciones necesarias para llevar adelante su vida.

Asier fue detenido en 1992, permaneciendo 5 años secuestrado en prisión. En 2001, para evitar que el Estado español sufriera una vez más la represión, tuvo que huir de su país y trasladarse a Venezuela sin ninguna identidad. Desde entonces ha estado viviendo sin ningún tipo de documentación o identidad.

Una vez más, se está poniendo de manifiesto la represión que lleva a cabo el Estado español contra los militantes que cuestionan su poder. Y es que la persecución que está llevando a cabo ha llevado no sólo a condenar una vez más a un refugiado político a permanecer a miles de kilómetros de su pueblo, sino que le han empujado a poner en peligro su vida, obligándole a hacer una huelga de hambre para que sus clamores se escuchen y se cumplan.

Desde la coordinadora JARDUN queremos mostrar nuestra solidaridad con la lucha que está llevando a cabo Asier y denunciar, asimismo, la represión del estado español. Y es que, además de pisar Euskal Herria en parámetros tanto de clase como de nación, utiliza toda la maquinaria represiva que tiene en sus manos contra los militantes que optan por luchar ante ella. Para terminar, queremos reivindicar la libertad de los presos, refugiados y refugiados políticos, para lo cual la amnistía será un logro imprescindible. Porque la amnistía supondrá la superación de las opresiones del Pueblo Obrero Vasco, camino en el que la liberación de presos, refugiados y exiliados políticos será imprescindible.

Gora Euskal Herria askatuta

Gora Euskal Herria sozialista

---

*https://eh.lahaine.org/asier-guridi-gose-greban*